



## EUROPA KONSTELAZIOA CONSTELACIÓN EUROPA

2013ko otsailaren 21etik martxoaren 21era  
Del 21 de febrero al 21 de marzo de 2013

### Orduetgia

#### Horario

Asteartetik igandera  
De martes a domingo  
10:00-20:00

Astelehenetan itxita, jaiegunetan irekita  
Lunes cerrado, festivos abierto

Laborategia Gunean | Sarrera dohainik  
Sala Laboratorio | Entrada gratuita

San Telmo Museoa  
Zuloaga Plaza, 1  
20003 Donostia-San Sebastián  
943-481580  
www.santelmomuseoa.com

## Europa konstelazioa

Mundu mailako krisialdi ekonomikoak agerian utzi ditu Europari buruzko kontzeptuaren inguruko desadostasunak; aldi berean, arazoan aurrean kontinentea arazo eta konponbide denez gero, Europa zahar eta berria hil ala biziko borrokan ari dira, birformulatze etengabea eta zehaztugabea. Nazio- eta eskualde-identitateen mosaiko izanik, gertaera historiko zein errealitate sozio-ekonomiko, adostasun kulturalako gune, lurralde asimetriko eta abar izanik ere... Europari, inoiz baino gehiago, berrikuste sakon bat ari zaio egiten.

Zein egiteko du kulturak eta, zehazki, arte garaikideak, Europako irudikapen antagonista horiek interpretatzeko orduan? Prozesu horretan, zein da kultura-erakundeen eta arte-museoen egitekoa? Zein dira eremu publiko parte-hartzaile baten bertsio desberdinak? Eta, oroz gain, zein da modernizazio eta aurrerabide-aren egitekoa kultura moderno komunaren eboluzioan?

Europa Konstelazioa egiako metafora bihurtu daiteke; antzinako herri eta zibilizazioek izarrak irudizko marren bidez elkartu eta zero-esferaren gainean irudi birtualak sortu zituztenean bezala. Horren argitan, beharbada posible da Europa irudizko sare bat bailitzan imajinatzea eta pentsatzea. Apetaren arabera identitateez egina legoke, ez halaberharrez toki-mailan elkaturik, baina bai espazio mugagabea ordena bat osatuz.

Konstelazio horretan, bertan ez dagoen osotasun batetik abiatuz, artistek gizarte-mailako gaiak lantzen dituzte, herritarrei galdea egitea helburu duten arazoak plazaratzeko: kultura-erakundeen eginkizuna, hezkuntza, eleaniztasuna, desberdintasun kulturalak, immigrazioa edo iragan historiko eta memoriarekikoa. Arte garaikideak gizarte-eduki hori guztia erabiltzen du, eta, artisten begirada subjektiboaren bidez, gizarteari itzuli egiten dio.

Europa Konstelazioa arte garaikideko erakusketa-proiektua da, Donostia 2016ko Europako Kultur Hiriburutza proiektuaren baitan dagoena, eta aipatu hirian erakusgai egongo dena eta sare zabalago baten baitan dagoena, Europako beste hiriak elkarrekin lotzeko, hala nola, Oslo, Lodz, Londres, Brusela, Minsk, Istanbul eta Novi Sad.

## Constelación Europa

La actual crisis económica mundial ha puesto de manifiesto las divergencias sobre el concepto de Europa; al mismo tiempo problema como solución a los problemas, la *vieja* y la *nueva* Europa se debate de modo agonista, en su reformulación constante e indefinida. Mosaico de identidades nacionales y regionales, hecho histórico o realidad socio-económica, espacio de consenso cultural, territorio asimétrico... Europa es más que nunca el objeto de una profunda revisión.

¿Qué papel tiene la cultura y en concreto el arte contemporáneo a la hora de interpretar estas representaciones antagónicas de Europa? ¿Cuál es el rol desempeñado por las instituciones culturales y los museos artísticos en este proceso? ¿Cuáles son las diferentes versiones de una esfera pública participativa? Y sobre todo ¿cuál el papel de la modernización y el progreso en la evolución de una cultura moderna compartida?

Constelación Europa puede devenir en toda una metáfora; del mismo que pueblos y civilizaciones antiguas decidieron mediante trazos imaginarios vincular las estrellas, creando así siluetas virtuales sobre la esfera celeste, quizás sea posible imaginar y pensar Europa como una red imaginaria de identidades completamente arbitrarias, no necesariamente localmente asociadas, pero que en la inmensidad del espacio conforman un orden.

En esta constelación, una parte de una totalidad ausente, los y las artistas desarrollan temáticas de contenido social que tocan problemáticas que interpelan a la ciudadanía: la función de las instituciones culturales, la educación, el multilingüismo, las diferencias culturales, la identidad nacional, la inmigración o la negociación con el pasado histórico y la memoria. El arte contemporáneo incorpora todo este contenido social y lo devuelve a la sociedad a través de la mirada subjetiva de los y las artistas.

Constelación Europa es un proyecto expositivo de arte contemporáneo que recalca en Donostia-San Sebastián, que se inscribe en el proyecto de Capital Europea de la Cultura 2016 y que forma parte de una red más extensa que vincula otras ciudades europeas como Oslo, Lodz, Londres, Bruselas, Minsk, Estambul y Novi Sad.

## Constellation Europe

The current global economic downturn has made the divergences about the concept of Europe apparent; being the problem and its solution at the same time, the *old* and the *new* Europe is discussed agonistically in its constant and indefinite reformulation. A mosaic of national and regional identities, a historical fact or a socio-economic reality, a space of cultural consensus, an asymmetric territory... Europe is more than ever the object of a thorough analysis.

What is the role of culture in general and that of contemporary art in particular in interpreting these conflicting representations of Europe? What is the role played by cultural institutions and museums in this process? Which are the different versions of a participatory public sphere? And above all else, what is the role of modernisation and progress in the evolution of a shared modern culture?

Constellation Europe: this form of the constellation can, in a sense, become a real metaphor. The same way ancient peoples and civilisations decided to link the stars with imaginary lines, creating virtual silhouettes all over the celestial sphere, it may be possible to think and imagine Europe as an imaginary network of arbitrary identities, not necessarily associated locally, but as identities constituting an order in the immensity of space.

In this constellation, a part of an absent totality, some of the themes have been adapted to certain social issues that affect the citizens of the Basque Country: the function of cultural institutions, the education, language, national identity, immigration and the negotiation with the historical past and the memory. Contemporary art incorporates all this social content and gives it back to society through the subjective view of the artists.

Constellation Europa in Donostia-San Sebastián, within the framework of the European Capital of Culture 2016, that is part of a wider network, a point linked to other points connecting several European cities such as Oslo, Łódź, London, Brussels, Minsk, Istanbul and Novi Sad.

# ERAKUSKETA EXPOSICIÓN

2013ko otsailaren 21etik martxoaren 21era Del 21 de febrero al 21 de marzo de 2013

Laborategia Gunean | Sarrera dohainik Sala Laboratorio | Entrada gratuita

Annika Eriksson – Iñaki Garmendia – Lise Harlev  
Oliver Klimpel – Aleksander Komarov – Asier Mendizabal  
Jean-Marie Straub / Danièle Huillet – Xabier Salaberria  
Christian Teckert – Katarina Zdjelar

## PROIEKZIOAK PROYECCIONES

Ekitaldi Aretoa – Sarrera librea lekuak bete arte Sal6n de Actos – Entrada libre hasta completar aforo

### Martxoaren 7a, osteguna Jueves 7 de marzo, 19:00 H

*Learning from Life*

Eskolaren inguruko gogoela Eskandinaviako lesluinguruan  
Una reflexi3n sobre la escuela en el contexto escandinavo

*Freedom Requires Free People*

Ane Hjort Gullu

2012 - Norvegia / Noruega - 33'

Filmak Jens izeneko zortzi urteko ume baten bizimodua eta hark eskolarekin duen harremana kontatzen du, elkarrizketen bidez eta bere eskola-eguna irudikatuz. Laster agerian geratuko da Jens gogor dagoela eskolaren aurka, bertako betebeharren eta arauen kontra.

Retrata a un ni1o de ocho a1os, Jens, y su relaci3n con el colegio a trav6s de entrevistas y documentaci3n de su jornada en el colegio. Pronto se har6 evidente que Jens se opone firmemente al colegio y a sus normas y reglamentaci3n.

The film depicts an eight-year-old boy, Jens, and his relationship to school, through interviews and documentation of his school day. It soon becomes apparent that Jens is strongly opposed to school and its rules and regulations.

azp tituluak euskeraz eta gazteleraz subt titulado en euskera y castellano

*Ante*

Arvid Skauge - Nils Ulvi

1975 - Norvegia / Noruega - 25'

Sei ataletan, *Ante* telesailak 12 urteko ume sami baten gorabeherak kontatzen ditu, Anterenak, hain zuzen, bere bizimodua tundran, eta eskolan. Lehen ataletan, Ante bere landa-eremua utzi eta barnetegi batera joango da. Bertan, liskarrean hasiko da irakasleekin eta gainerako langileekin. Etengabe ibiliko da azken horiengandik ihesi egin nahian. *Ante*k oihartzun handia izan zuen, eta nazio mailan jende askok izan zuen Norvegiako iparraldean samiek bizi duten egoeraren berri. Sami hizkuntzan egindako lehenbiziko ekoizpena izan zen, zuzendari, aholkulari eta aktore samiekin egina, eta Norvegiako telebista nazionalean emana.

En seis episodios, la serie de televisi3n *Ante* narra la situaci3n de un ni1o sami de 12 a1os, Ante, y su vida en la tundra y en el colegio. En el primer episodio, Ante viaja de su entorno rural a un internado donde entrar6 en conflicto con los profesores y el resto del personal, y del que continuamente tratar6 de escaparse. *Ante* tuvo una gran repercusi3n acercando la situaci3n de los sami en el norte de Noruega a una gran cantidad de p6blico a nivel nacional. Fue la primera producci3n en lengua sami, con directores, asesores y actores sami, emitida en la televisi3n nacional noruega.

In six episodes, the TV series *Ante* described the situation of a twelve-year-old Sami boy, Ante, and his life on the tundra and at school. In the first episode, Ante travels from his rural home to a boarding school, where he comes into conflict with teachers and staff, and regularly tries to run away. *Ante* had an immense impact in bringing the situation of the Sami in northern Norway to the attention of a broader national audience. It was the first time a Sami language production, using Sami directors, consultants, and actors, had been broadcast on Norwegian national television.

azp tituluak ingelesez subt titulado en ingl6s

*L6ra f3r livet / Learning from Life*

Carin Mannheimer

1977 - Suedia / Suecia - 6. atalaren pasarlea | fragmento episodio 6

*Learning for Life* Suediako telesail dramatiko da, sei ataletan banatua, eta unibertsitateko ikasle talde baten nondik norakoak erakusten dituena. Beren azken ikasturtean daude, 70ko hamarkadako Goteborg hirian. *Learning for life* Suediako telebis-taren historian egin den telesailik arrakastatsuen bihurtu zen. Atal bakoitzeko, 3,5 milioi ikusleko audientzia lortu zuen.

*Learning for Life* es una serie dram6tica sueca dividida en seis partes que sigue a un grupo de universitarios en su 6ltimo curso a finales de la d6cada de los 70 en Gotemburgo. Se convirti3 en la serie m6s popular en la historia de la televisi3n sueca con una audiencia de 3,5 millones de espectadores por cada episodio.

*Learning for Life* is a Swedish drama series in six parts that followed a graduating college class in Gothenburg in the late 1970s. *Learning for Life* became the most popular series in Swedish television history with 3.5 million viewers tuned in to each episode.

azp tituluak ingelesez subt titulado en ingl6s

**Aurkezpena eta lopaketa Ane Hjort Gullurekin**

Presentaci3n y encuentro con Ane Hjort Gullu

### Martxoaren 13a, asteazkena Mi6rcoles 13 de marzo, 19:00 H

*Spectres*

Sven Augustijnen

2011 - Belgika / B6lgica - 104'

Hil zutenetik berrogeita hamar urte igaro direla, Patrice Lumumba, Kongo Independentean Lehen ministroaren kargua betetzen lehena, itzuli egingo da Belgikari oinazea sorrarazteko. Oroitzapen-ospakizun eta topaketen bidez, eta itzuliko bisitaldi batez, funtzionario goi-kargudun bat, 1961eko urtarrilaren 17ko egun tragiko hartan Elisabethvillen zegoena, iraganeko mamuak uxatzen ahaleginduko da. J.S. Bachen *Pasioa San Joanen* arabera giro musika modura, *Spectres*ek Kongo Belgikarreko deskolonizazioaren egunik beltzenetakoan murgiltzen gaitu. Gorputz biopolitikoaren azterketa; Sven Augustijnen-en film honek agerian uzten du bai zein mehea den legitimazioaren eta historiografiaren arteko marra, bai erantzukizunaren eta zorraren kontu traumatikoa.

Cincuenta a1os despu6s de su asesinato, Patrice Lumumba, el primero en ocupar el cargo de Primer Ministro del Congo independiente, regresa para atormentar a B6lgica. A trav6s de conmemoraciones, encuentros y una visita de vuelta, un funcionario de alto cargo que estaba en Elisabethville el tr6gico d6a del 17 de enero de 1961, intenta exorcizar a los fantasmas del pasado. Con *La Pasion seg6n San Juan* de J.S. Bach de fondo, *Spectres* nos sumerge en uno de los d6as m6s negros de la descolonizaci3n del Congo Belga. Un an6lisis del cuerpo biopol6tico; esta pel6cula de Sven Augustijnen revela la delgada l6nea que separa la legitimaci3n y la historiograf6a y la cuesti3n traum6tica de la responsabilidad y la deuda.

Fifty years after his assassination, Patrice Lumumba, Prime Minister of the newly independent Congo, is back to haunt Belgium. Through commemorations, encounters and a return visit, a top-ranking Belgian civil servant who was in Elisabethville on that tragic day of 17 January 1961 attempts to exorcise the ghosts of the past. To the sound of *St John Passion* by J.S. Bach, *Spectres* plunges us into one of the blackest days of the Belgian Congo's decolonisation. An examination of the biopolitical body, this feature-length film by Sven Augustijnen exposes the fine line separating legitimation and historiography and the traumatic question of responsibility and debt.

azp tituluak gazteleraz subt titulado en castellano

**Aurkezpena eta lopaketa Sven Augustijnenekin**

Presentaci3n y encuentro con Sven Augustijnen

### Martxoaren 20a, asteazkena Mi6rcoles 20 de marzo 19:00 H

*Language Lessons*

Aleksander Komarov

2011 - Bielorrusia - 12'

Bielorrusian eztabaida biziak pitzen dira bertako hizkuntzaren inguruan, batetik identitate nazionalerako oinarritzat hizkuntza jartzten duten kontzeptu zaharrak, eta, bestetik, ideia modernoagoak, hizkuntza eraikitzeke ahalbidetzat ikusten dutenak. *Language Lessons*-en hondoko irudian, testuinguru historikoa eta gaur egungo gatazkak daude. Aleksander Komarovek Bielorrusiako intelektual batzuk gonbidatzen ditu (arte historialari bat, analista kultural bat, poeta bat, konpositore bat eta musikari bat), hizkuntzaren inguruan gogoeta egin dezaten.

Debates apasionados sobre la lengua del pa6s tienen lugar en Bielorrusia entre viejos conceptos acerca de la lengua como base para la identidad nacional e ideas m6s modernas sobre la lengua como construcci3n. El contexto hist3rico y las luchas presentes son el tel3n de fondo de *Language Lessons*. Aleksander Komarov invita a una serie de intelectuales bielorrusos (un historiador de arte, un analista cultural, un poeta, un compositor y un m6sico) a reflexionar en torno a la lengua.

Impassioned discussions about the language of the country are held in Belarus between; old concepts about a language as a base for national identity and more modern ideas about a language as a construct are reflected on intensively. The historical context and the present struggles are the background for *Language Lessons*. Aleksander Komarov asks Belarusian intellectuals (an art historian, a cultural scientist, a poet, a composer and a musician) to reflect on the language.

azp tituluak euskeraz eta gazteleraz subt titulado en euskera y castellano

*Palipadua zennije*

Aleksander Komarov

2012 - Bielorrusia - 21'

"Palipadua zennije" asmatutako izena da. Lorategi botanikoetako landareen latinezko izenak ditu aipagai. Izen zeharo artifizialak dira. Aleksander Komarov-en film honetan, Bielorrusiako etorkin talde bat Amsterdamgo lorategi botanikoan dago. Bielorrusiera ematen duten hitzak irakurtzen dituzte, baina asmatuak dira, filmeko izenburua bezalaxe, *Palipadua zennije*.

"Palipadua zennije" es un nombre inventado. Se refiere a los nombres latinos de las plantas jardines bot6nicos, los cuales son totalmente artificiales. En el film Aleksander Komarov un grupo de inmigrantes bielorusos se encuentra en el jard6n bot6nico de Amsterdam. Leen palabras que suenan a Bieloruso pero que est6n inventadas, como el t6tulo del film, *Palipadua zennije*.

"Palipadua zennije" is an invented name. It refers to Latin plant names in botanical gardens, which are totally artificial and given by their discovers long time ago. In the film of Aleksander Komarov a group of Belarusian immigrants find themselves in the Botanical garden in Amsterdam. They read words, that sound Belarusian but were invented, like the title of the film - *Palipadua zennije*.

azp tituluak euskeraz eta gazteleraz subt titulado en euskera y castellano

**Aurkezpena eta lopaketa Aleksander Komarov-ekin**

Presentaci3n y encuentro con Aleksander Komarov